



142. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2020ko martxoaren 9an, arratsaldeko bostak eta erdietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak: Alex Oleden Antia, jna.
Maider Alberdi Yeregui, and.
M. Arritokieta Iribar Egaña, and.
Asier Arakistain Alberdi, jna.
Marina Bidasoro Arocena, and.
Jose María Azkue Castillo, jna.
Maddi Aldalur Osa, and.
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.
Oier Korta Esnal, jna.
M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Cristina Vicente Iciar, and.
Gotzon Embil Unanue, jna.
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and
Iker Mardaras Arrieta, jna.
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak:

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre



**1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:
(141. zbkia – 2020.02.27)**

Akta, onartutzat geratzen da.

2.- OGASUNA.-

2.1.- PROPOSAMENA:

2.1.1.- 2021-2022 EKITALDIRAKO KONPROMISO-KREDITUAREN HASIERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.-

**UDALAREN 2. KREDITU ALDAKETA. KONPROMISU KREDITUAK UDALBATZA:
2021/2022 SAN JOSE KOMENTUA ALKATEAREN PROBIDENTZIA ESPEDIENTE HASIERA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu aurreikustea, ondoko proposamenean adierazten den moduan. Udalak sustapen ministerioaren diru-laguntza deialdi batera aurkeztuko da, San Jose komentuko obrak bideratzeko, eta bertan, derrigorrezko betebeharren artean, kreditua dagoenaren ziurtagiria da. Horregatik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 22. artikuluan jasotakoaren arabera, konpromiso kredituak sortzea proposatzen da, eta hau ebatzi dut:

Hasiera eman dakiola kreditu gehigarrien espedienteari, aipatutako xedapenean jasotako erregulazioari jarraiki. Honako tramiteak jasoko ditu espedienteak: Alkatearen proposamena; Kontu-hartzailearen txostena; egonkortasun txostena; eta organo eskudunaren onarpena.

Alkatea

“Konpromiso kreditu bidezko kreditu aldaketaren 2020-KALD-0000002 zenbakidun espedienteak onartzeko proposamena”.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu konpromiso modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak 22. artikuluan.

Gaia aztertu ondoren,

PROPOSAMENA

Lehenengoa.- 2020ko martxoaren 9an ospatzen den Osoko Bilkura honek onartzen du/ez du onartzen Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu konpromiso modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

.- 2021 urterako konpromiso-kredituak sortzea:
5 0100.622.334.00.01 (San Jose konbentua) : 721.000.

Finantzaketa, aurrezki garbia.

-2022 urterako konpromiso-kredituak sortzea:
5 0100.622.334.00.01 (San Jose konbentua) : 322.000.



Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak:
Aurkako botoak:
Abstentzioa:

Zumaian, 2020ko martxoaren 9an

Alkatea

Idazkaria

Gaia tratatzea ontzat emanda eta ondoren bozketaren emaitza zehazten da

Aldeko botoak: 9 boto (EH BILDU)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 8 boto (7 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

ERABAKIA: 1.- 2021-2022 ekitaldirako konpromiso-kredituaren hasierako izaeraz onartzen da, laburpen honen arabera:

.- 2021 urterako konpromiso-kredituak sortzea:
5 0100.622.334.00.01 (San Jose konbentua) : 721.000.
Finantzaketa, aurrezki garbia.
-2022 urterako konpromiso-kredituak sortzea:
5 0100.622.334.00.01 (San Jose konbentua) : 322.000.

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3.- 2020ko EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK HAUTESKUNDE MAHAIKIDEEN ZOZKETA

Datorren apirilaren 5ean ospatuko dira 2020 Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak,

Ikusirik hauteskunde egutegiak izendatzen dituela martxoaren 7etik eta 12ra bitartean (LOREG 26.4 artikulua arabera) mahaikideen zozketa egin daitekeela, alkateak ezohiko osoko bilkuran gaia tratatzea erabaki du. Beraz, emaitza honakoa da:



2020 EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK HAUTESKUNDE MAHAIKIDEEN ZOZKETAREN EMAITZA

PRESIDENTE	44154294K	72474592M	44133488F	44132151G	72495124K	72739678Q	44131233Y	15927226W	44171930Q	15390353H
1º Suplente	14919506G	73044522H	44132258L	73058445A	72582454C	44172092V	72458219P	15956190D	72429210W	72601824R
2º Suplente	72436074N	72496173N	72544097G	34093842E	72444131L	15943734L	44171910L	15983080N	15928382P	15991013X
1º VOCAL	44023590A	15935550T	72435931F	72443982P	72512187H	44331287Y	44171847W	72494892L	72442741D	72503584V
1º Suplente	72537789K	72546692T	44132505J	72427308D	07789594T	72442217Z	34082643R	72458421A	15388553N	72513554M
2º Suplente	72444096F	72458747F	72435936N	72436496C	72442769Z	72505596M	15981056N	15913601Q	13710006M	34091027J
2º VOCAL	72496586B	72503260S	44334137G	44134373H	15943914S	44145395T	72452453S	34096175D	14950089C	15929408E
1º Suplente	72605514B	72583414Z	35775866X	73218896Y	15962839B	15899692E	72462958D	72484925B	34085310T	72443979M
2º Suplente	72505686A	15349582A	14545848G	34088280A	72458398A	72451914M	15955884W	72572033H	44572777L	15996649B



Zumaia Udala

2020IAKU0003-A20/1995

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak hamar gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

Dokumentu kod./Cod. Documento	2020IAKU0003-A20/1995	
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAABAPZV.e6vH 000.0081.AAAAABAPZ.V.e6vH	